

2011KO OTSAILAREN 21EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bata.

HILABETEA: Otsaila.

URTEA: Bi mila eta hamaika.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortziak eta erdietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Josi Insausti Mujika

Julio Herreros Serna

EZ DA ETORRI: Begoña Lasa Royuela

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2011ko otsailaren 4ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- OBRAK KONTRATATZEA. Udaletxean, lehen Euskaltea zen tokian bulegoak egokitzeko obrak kontratatzeke baldintza plegua onartzea.

Hirigintza batzordeko proposamenaren arabera, aho batez onartu da, lehen Euskaltea zen tokian bulegoak egokitzeko obrak kontratatzea eta horretarako baldintza plegua onartzea. Lizitazio prezioa, **116.348,00 € gehi BEZ**, denez kontratazioa prozedura negoziatuaren bidez egitea erabakia da, esleipen irizpidea, prezio baxuena izanik. Egikaritze epea 8 astekoa izango da. Beraz, hiru enpresei gonbidapena bidaliko zaie lizitaziora aurkezteko.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE), esan du bera ez dagoela ados proposatzen denarekin, orain dela gutxi egindako udal berrantolaketa-obrekin ere ez zirelako alde azaldu, izan ere, obra horietan ez da aurreikusten bulegorik talde-politikoentzat.

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

3.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko bederatziak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.